

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Euskal Herriko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco

2005



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

SARRERA	5
I.- IRITZIA	6
I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.	6
I.2 Kontuei buruzko iritzia.....	7
II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	8
II.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	8
II.2 Langileria	10
II.3 Izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanak	12
II.4 Kontratazio administratiboa	13
II.5 Berezko tituluak	16
III. FINANTZAREN ANALISIA ETA BILAKAERA AKADEMIKO ETA	
IRAKASKUNTZAKOA	17
IV. URTEKO KONTUAK	21
INTRODUCCIÓN	23
I. OPINIÓN	24
I.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	24
I.2 Opinión sobre las Cuentas	25
II. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	27
II.1 Presupuesto y Contabilidad.....	27
II.2 Personal	29
II.3 Trabajos de carácter científico, técnico y artístico	31
II.4 Contratación administrativa	32
II.5 Títulos propios	36



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. ANÁLISIS FINANCIERO Y EVOLUCIÓN ACADÉMICA Y DOCENTE 37

IV. CUENTAS ANUALES 41

ANEXOS 43

A.1 Aspectos generales	43
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	44
A.3 Gastos de Personal	46
A.4 Compra de bienes corrientes y servicios	52
A.5 Inversiones reales e inmovilizado.....	52
A.6 Tasas y otros ingresos	53
A.7 Transferencias corrientes y de capital recibidas.....	55
A.8 Variación de activos financieros	56
A.9 Variación de pasivos financieros.....	56
A.10 Deudores de ejercicios cerrados	57
A.11 Operaciones extrapresupuestarias.....	58
A.12 Tesorería.....	58
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	59
A.14 Análisis de la contratación administrativa.....	60

ALEGAZIOAK..... 63

ALEGACIONES 71

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 8a

Vitoria-Gasteiz, 8 de noviembre de 2007

SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean EHU) 2005eko ekitaldiko fiskalizazioa, HKEEren Lanerako Planean jaso, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera burutu da.

Txosten honek honako alderdiok besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Legezkotasun, aurrekontu, langileria eta administrazio kontratazioaren ataletan.
- Kontularitzakoak: Txosten Ekonomikoa ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Unibertsitatearen azterketa finantzarioa eta bilakaera akademiko eta irakaskuntzakoa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, 2005eko ekitaldian aurrekontu, langileria eta administrazio kontratazioari dagokionez azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Lan hau gauzatu ahal izateko, 2005eko ekitaldiaren kontularitzako aurrekontu egoerei buruzko kanpoko auditoria txostena hartu da abiaburu, egoki iritzitako proba osagarriak egin direla.

EHUk ondoko fundazioetan gehiengo partaidetzarekin esku hartzen du: Udako Ikastaroen Fundazioa; Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa eta Unibertsitatea-Enpresa Ikerketa Fundazioa (Euskoiker Fundazioa).

I IRITZIA

I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

AURREKONTUA

1. 2005eko aurrekontu-ekitaldiaren itxieran geroko ekitaldietarako hitzartutako gastuak daude, aurrekontuan izendapenik ez dutenak eta 3.225 mila euro egiten dituztenak. (ikus A.14).
2. EHUK guztira 104.588 mila euro egin dituzten aurrekontuko aldaketak erregistratu ditu, dagokion onespena inongo organo eskudunek eman ez diela.

LANGILERIA (Ikus A.3)

3. EHUK ez ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) Lanpostu Zerrendan egindako aldaketak argitara eman, otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen 99.5 artikulua agindutakoa urratuz. Bestalde, EHUren Estatutuen 33.1 artikulua (aurrerantzean Estatutuak) argitara eman aurreko betekizun modura ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak baimendu egin behar duela irakasle eta ikerlarien kostua; 2004ko ekitaldiaz geroztik, EHUK seihileroko onesten du Lanpostuen Zerrenda, horrek eragiten duen kostua baimentzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman aurreko urrats modura eta ondoren Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera igortzen du. Txosten hau idatzi dugun datan Eusko Jaurlaritzak ez du Lanpostuen Zerrendaren kostua baimendu eta honenbestez, ez da argitara eman.
4. EHUK 2005eko ekitaldian 5.423 mila euro ordaindu zituen osagarrien eta ordainsari parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko otsailaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusi gabe daudenak.

KONTRATAZIOA (ikus A.14)

5. EUITI eta Bilboko Telekomunikabideak handitzeko obren exekuzioan zehar, 1999an 6.931 mila euroan esleitu zirenak, obren kostua % 47 garestitu duten obra osagarri eta kontratu aldaketak izapidetu dira. Aribide honek obraren bolumen ekonomikoa desitxuratzea ekarri du, APKLTBn jasotako lehiaketa printzipioak eragin dituela. Obra hauek atzeraldi handiak izan dituzte esleipen hartzaileari ezargarriak ez zaizkion kausak direla tarte eta horren ondorioz, kontratatari 2002, 2004 eta 2005eko ekitaldietan, hurrenez hurren, 947, 965 eta 102 mila euroko kalte-ordainak ordaindu behar izan zaizkio, kontratuaren prezioan % 29ko gehigarri osagarria eragin dutenak.
6. EHUren Gobernu Kontseiluak ez ditu EHUK Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin hitzartutako hitzarmena sinatzeko zuzentarauak onetsi, Eusko Jaurlaritzak 2005etik 2008ra bitarteko urteetarako abian jarritako telekomunikabide zerbitzuak kontratatuzko prozedurara txertatzeko, 2005eko ekitaldian EHUrentzat 995 mila euroko gastua eragin duena, Estatutuen 243.j) artikuluan xedatutakoa urratuz.



7. WIFI sarbideko sistemaren kontratuak, 12 BASK sarearen azpiegitura lerroenak eta EHUren komunikabideen erakunde sarea mantentzeko kontratuak telefonia zerbitzua ematen duen enpresari esleitu zitzaizkion 250, 2.025 eta 4.808 mila euroko zenbatekoarekin, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez, hiru eskaintza egiteko eskatu ondoren; ordea, prozedura irekia erabili behar zatekeen.
8. EHUk APKLTBn legez aurreikusitako prozedurak saihestu ditu ondoko gastu hauek egiterakoan: 63 mila euroko obra bat, 5 laguntza tekniko guztira 354 mila euroan eta 63 mila euroko kontratu pribatu bat.

Epaitegi honen ustetan, EHUk, 1etik 8ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2005eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

I.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EHUk 2005eko ekitaldian, lehenengo aldiz Txosten Ekonomikoan ondare kontabilitatea barne hartu du: egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta aurrekontu eta ondare kontabilitatearen emaitzen arteko berdintzea. Nolanahi dela ere, ibilgetuaren oinarri den ondasun-zerrendak ez ditu ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak barne hartzen eta honenbestez, kontuek ez dute egoki islatzen ez ibilgetua, ezta amortizazioa ere.
2. 2005eko abenduaren 31n berariazko geldikina osatzen duten kontu-sail eta programen lagin bat aztertzetik ondorioztatu dugu horietako zenbaiti gastu orokorretarako geldikin izaera eman behar zaiela. Hala eta guztiz ere, zenbatekoa aurrekontuko aplikazio ugaritan sakabanatua egotearen ondorioz eta ikerketa kontratuen amaierari buruzko kontrol eskasaren ondorioz, ezin ondoriorik atera dezakegu 2005eko abenduaren 31ko berariazko geldikinaren zuzentasunaz.
3. 2005eko ekitaldiari dagozkion irakasleria eta ikerlarietzako ordainsari osagarri gehigarriak, 8.090 mila euroko zenbatekoarekin kontura ordaindutakoak, likidazio zain daude txosten hau idatzi dugun datan, izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez baitu amaitu EHUren irakasle eta ikerlarien ordainsari osagarri gehigarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera egin beharreko duen ebaluazioa. Unibertsitateak 2005eko abenduaren 31ko berariazko geldikinean 1.011 mila euroko zenbatekoa bereizi du likidazio honi aurre egiteko; ordea, ez dago horren zuzentasunaz iritzirik ematea bideratuko duen informaziorik.

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. idatz-zatietako salbuespenen, 3. idatz-zatiko mugaketaren eta 4. idatz-zatian azaldutako zalantzaren eragina salbuetsita, EHUren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2005eko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta 05.12.31n finantza egoera eta ekitaldiko eragiketen emaitzak erakusten dituzte.

II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedura eta kudeaketazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

II.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Baimendutako gastu unitateak (BGUak)

EHUren kontabilitate sistema BGUetan deszentralizatuta dago, eta unitate horiek arduratzen dira kontabilitateaz, ordainketez eta aurrekontu kudeaketaren kontrolaz. BGUak bi motatan bereizten dira, batzuk iraunkorrak dira (Zerbitzu Nagusiak, Zentroak, Sailak, Institutuak eta Zerbitzuak, guztien artean 200 gastu unitate inguru egiten dituztenak), eta beste batzuk, iragankorrak (1.800 unitate inguru). Unitate iraunkor horiek gastuak kudeatu, kontabilizatu eta ordaintzeko eratzen dira, gastu horiek ikerkuntzari, irakaskuntzari edo Unibertsitateak kanpoko erakundeekin egindako kontratuak betetzeari buruzkoak direnean; halaber, bi finantziario iturri dituzte, prezio publikoak, batetik, gradu ondoko ikastaroetarako, eta kanpoko ekarpenak, bestetik, proiektuen eta kontratuak egiteko. Gastu eta ordainketa horien agiri euskarriak unitateetako bakoitzean geratzen dira, eta ikastaro edo kontratuaren arduradunak dira gastu hori finantzatzeko diru-sarrera jasotzen duen kontu korrontearen titularrak.

Gure ustez, BGUen bidez gaur egun dagoen deszentralizazioa ez da eraginkorra gastua behar bezala kontabilizatzeko eta ondoren kontrolatzeko. Modu batuago batean egin beharko litzateke.

Era berean, egiaztatu beharko litzateke ea kontabilitatearen euskarri diren agiriak kontabilizatzeko, justifikatzeko, ordaintzeko eta artxibatzekeko prozedurak betetzen diren, bai eta mantenuko gastuak eta joan-etorrietakoak behar bezala justifikatzen diren ere, Barne Kontroleko Zerbitzuak aldizka ikuskapena eginda.

Berariazko Geldikina

Unibertsitatearen berariazko geldikina inbertsioetara, ikerkuntza proiektuetara bideratutako kredituek eta xede jakin baterako kanpoko baliabideez hornitutako kontratuetatik datozenek osatzen dute; baita sortutako konpromisoen kontzeptuan exekutatzeko dauden kredituek ere, kreditu horien saldoak esleipena jaso zuten unitate funtzionalen eskura geratzen direla (Estatutuen 318 art.). EHUK aurkeztutako txosten ekonomikoaren arabera, berariazko geldikina 48.218 mila eurokoa zen 2005eko abenduaren 31n, eta haren % 43a ikerkuntza programen “ondasun arruntetarako eta zerbitzuetarako gastua” izeneko kapituluari zegokion. Kapitulu horrek kanpoko finantziarioa duten ikerkuntza kontratuak jasotzen ditu -

kontratu horietako gehien-gehienak hainbat urtetan gauzatzekoak dira- eta izendapena kontratuaren hasierako ekitaldian kreditu osoarekin egin ohi da.

Berariazko geldikina 1.853 aurrekontu aplikaziotan barreiaturik dago (1.812 aplikaziok guztizko zenbatekoaren % 61a hartzen dute). Zenbatekorik handienak dituzten BGuak eta, batez ere, ikerkuntza programei dagozkienak aztertuta, hainbat kontu-sail aurkitu dira berariazko geldikinean gaizki jasota zeudenak, haien finantziazioa ez baitzen helburu jakin baterako. Horien artean hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 578 mila euroko ekipamendu zientifikoa eta informatikoa; horien kontu-sailak EHUren sarrera aurrekontuaren bidez finantzatzen dira eta ez dute berariazko finantziatorik.
- EHUK eta Euskoiker Fundazioak izenpeturiko ikerkuntza kontratuen % 5eko atxikipenak. Haien helburua generikoa da, 276 mila euroko zenbatekoa guztira.
- Ez da behar bezala kontrolatzen ikerkuntza kontratuen burutzapena, eta, ondorioz, soberako kredituak arazteko lana egin gabe uzten da eta hurrengo ekitaldietako aurrekontuei gehitzen zaizkie. Huts honek Estatutuen 318. artikuluko 3. puntua aplikatzea eragozten du, izan ere, hari jarraituz, berariazko kreditu geldikinek haiei dagokien jarduera bukatu eta hurrengo ekitaldiaren amaieran galduko dutela izaera hori agintzen baitu. Honenbestez, dauden kontratu guztiak aztertu beharko lirateke, eta, kontratu berrien kasuan, elementu identifikatzaile bat sartu beharko litzateke programa informatikoan, informazio hori jasotzeko.

Bestelako alderdiak

- Aurrekontua ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da eta Txosten Ekonomikoa, berriz, hurrengo urteko lehenengo seihilekoan (Estatutuen 325.3 artikulua). Ordea, 2005eko ekitaldiari dagozkion aurrekontua eta Txosten Ekonomikoa, hurrenez hurren, 2005eko uztailaren 14an eta 2006ko abenduaren 27an onetsi zituen Gizarte Kontseiluak.
- Kontabilitatea aztertu ondoren, EHUK zuzendu behar litzuzkeen ondoko alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:
 - Aurreko ekitaldiaren Diruzaintzako Geldikina eskubide aitortu eta bildutako modura erregistratzen du, sarreren 8. kapituluaren bidez (Ikus A.8).
 - Bestalde, langileentzako mailegu gastu modura erregistratu da soldataren % 2ko igoera, eta emakiden eta itzulkinen mugimendu errealak aurrekontuz kanpoko eragiketetan erregistratu dira; eragiketa horiek aurrekontuan behar bezala erregistratuz gero, diruzaintzako geldikinak 723 mila euroko gehikuntza izango luke (ikus A.11).
 - Berebat, itxitako ekitaldietako eskubide eta obligazioen baliogabetzeak gastuen 8. kapitulan erregistratu dira (ikus A.8).
 - Aurrekontuz kanpo erregistratzen ditu itxitako ekitaldietako kobratu eta ordaindu beharreko saldoak.
- EHUK Barne Kontroleko Zerbitzu bat du, Errektorearen ardurapekoa, eta Kudeatzailearen autonomia funtzionala duena; zerbitzu horrek ez ditu

kontuhartzaitzari dagozkion lanak betetzen, eta ez du bere funtzioa betetzeko nahikoa baliabiderik, batez ere langile gastuei dagokienez, EHUren gastu guztien % 64 egiten dutenak.

II.2 LANGILERIA

Atal honetan ondoko alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Lan kontratupeko irakasle eta ikerlarien hitzarmen kolektiboaren bitartez (2005eko uztailaren 22ko EHAO) langile hauen ordainketa erregimena arautu zen, zehazki irakasle oso eta agregatu, irakasle kolaboratzaile eta lanaldi osoko dedikazio erregimena duten behin-behineko irakasle kontratatu, laguntzaile, irakasle adjuntu, elkartutako irakasle eta lanaldi partzialeko dedikazio erregimena duten behin-behineko irakasle kontratatu, irakasle bisitari, irakasle emeritu eta ikerlariena.

Ordainsari hauek Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen 33 eta 34 artikuluetan aurreikusitako arautegiaren garapenari meneratzen zaizkio, zeinaren arabera Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez kontrataturiko irakasle eta ikerlarien ordainsari erregimena zehaztuko duen; gainera, irakasle eta ikerlariarentzat, funtzionario eta kontratupeko langileentzat ordainsari osagarriak ezarri ahal izango ditu ordainsari gehigarri bitartez. Txosten hau idatzi dugun datan, irakasle eta ikerlarien ordainsari gehigarrien arabera osagarriak soilik arautu dira, Eusko Jaurlaritzaren urriaren 17ko 209/2006 Dekretu bitartez; ez dira arautu, ordea, ordainsari erregimen orokorra.

- Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak 70. artikuluan agintzen du aurrekontuaren gastu arrunten egoerarekin batera, Unibertsitateko maila guztietako langileen Lanpostu Zerrenda aurkeztuko dela, horien kostu guztiak berariaz zehaztuz. Irakasle eta ikerlarien kostuak, administrazio eta zerbitzuetaoak ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoak onetsi beharko ditu eta onespen hori gauzatu gabe dago oraino.

Ezinbestekoa da EAEk langile kostuak baimentzea, Gizarte Kontseiluaren aurrean aurrekontua izapidetzeko lehenagoko urrats modura, izan ere, EAEk berak finkatutako diru-laguntza arruntaren osagai nagusi baita.

- EHUK eman dituen erretiro-sariek 2005eko ekitaldian 488 mila euroko gastua izan dute. EHUren 2005eko langileria funtzionario eta lan kontratupekoaren lan baldintzak arautzen dituzten erabakietan ezarritakoaren arabera eman dira eta, Euskal Funtzio Publikoaren Legean hala aurreikusita badago ere, ez daude giza baliabideak arrazionalizatzeko inongo programatan jasoa.
- EHUK ez dauka irakasle bakoitzak egiaz egindako irakastorduak ezagutzea bideratuko duen ordutegi kontrolerako prozedurarik. Berebat, ikerketarako emandako ordu kopurua ere kontrolatzeke dago.

Dedikazio teorikoaren jarraipen eta kontrola gauzatu behar da, urratzen den kasuetan edo antzematen diren desbideratzeak justifikatzen ez direnean, dagozkion neurriak hartuz.

- EHUK 2003ko ekitaldiaz geroztik irakasle berriek kargu hartzean bateraezintasunei buruzko araua betetzen dela egiaztatzeko prozedura ezarria dauka. Nolanahi dela ere, data horretan zegoen langileriarri dagokionez, ezin izan da irakasle guztien egoera aztertu, irakasleek jarri dituzten errekurtsioengatik eta EHUK eskatutako agiriak kasu guztietan eman ez dituztelako.

Jarduera bateraezinen kontrolari eutsi behar zaio, Unibertsitatean diharduten langile arduradunen aitortzen bidez edo antzeko mekanismoen bidez, bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioetan hutsak zuzentzeko.

- Bestalde, adierazi behar dugu ez dela loturarik ezarri Euskal Autonomia Erkidegoko osasun erakundeetako asistentzia lanpostuen eta EHUKo Irakasle Kidegoen irakaskuntza plazen artean, nahiz eta apirilaren 25eko 14/1986 Osasun Lege Orokorrak hala ezarri, Herri Administrazioetako asistentzia eta irakaskuntza plangintzaren barruan; honela, bada, komeni da eraginpeko administrazio horiek behar diren jarduerak bideratzea, lotura hori ezarri ahal izateko.
- EHUK ez du aintzat hartzen irakasle bakoitzaren ordainsari aldakorren multzoa (gradu-ondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak, e.a.) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipen ehunekoa zehazterakoan.

EHUK gogoan izan behar ditu ordainsari guztiak PFEZaren atxikipen ehunekoa kalkulatu ahal izateko.

- Bilboko eta Donostiako lan arloko epaitegiek hainbat epai eman dituzte 2005eko ekitaldian zehar, bekadunek egindako erreklamazioak ebazteko, eta, epai horietan esaten da, EHUK eta eskatzaileek dituzten harremanak lan izaerakoak direla, eta, honenbestez, unibertsitateak aldea ordaindu behar die bekadunei, bekaengatik jasotako zenbatekoa txikiagoa baita bien aldean arteko harremana lan izaerakoa izanda jaso behar zuketena baino. 2005eko ekitaldian EHUK 184 mila euro ordaindu zituen kontzeptu honen izenean eta 786 mila euro 2006 eta 2007ko ekitaldietan lehenagoko ekitaldietako lan harremanen kontzeptuan.

Ikerketako bekadunaren figurari dagokionez, urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretua onetsi ondoren, prestatzen ari den langileria ikerlariaren Estatutua onesten duena, horren ordainsari eta gizarte segurantzako erregimena arautu da.

II.3 IZAERA ZIENTIFIKOA, TEKNIKOA ETA ARTISTIKOA DUTEN LANAK

Unibertsitateak izenpetutako izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lanei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Lan hauen artean Saiotek eta Etortek programak daude bilduak, 2005eko ekitaldian 4.784 mila euroko diru-sarrerak izan dituztenak; programa hauek Eusko Jaurlaritzak itzuli beharrik izan gabe emandako diru-laguntzen deialdi publikoei dagozkie. Diru-laguntza hauetan ez da figura honen erabilera justifikatuko duen eduki zientifikorik ikusi; eta iritzi hori indartzera dator EHUK berak banakako ordainsari osagarriak esleitzean kontratu hauek ez baloratu izatea.
- Eusko Jaurlaritzaren aurrean justifikatzeko Saiotek eta Etortek programen gastua, langile gastuei dagokiena da eta zeharkako kostuek osatzen dute, irakasle eta ikerlariarik sortutakoak, kostua/orduko kalkulua abiaburu hartuta zehaztu direnak; horiek, ordea, ez diete irakasleei inongo ordainsari gehigarririk ekartzen. Egoera honek eragin du 5.063 mila euroko berariazko geldikinak izatea, norako jakinik ez duten diru-laguntzek sortutakoak.
- Izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten kontratuetan, EHUK ez du kontratua exekutatzeko beharrezko diren egitekoak betetzeagatik irakasleriari ordaindu behar zaion prezio/orduko finkatu. Kontratua izenpetzeko unean gogoan izan behar litzateke hau, baliabideen banaketa jasotzen duen Oroi-idatzian zehaztu. Era honetara, kontratuen exekuzioari jarraipena egiterik izango litzateke, irakaskuntza eta ikerketarako dedikazioari dagokionez.
- Gobernu Batzordeak 1998ko maiatzaren 18an kontratu hauen hainbat alderdi arautu zituen Estatutuek esleitzen zizkieten eskumenen arabera eta Sail edo baliokidearentzat aurrekontu osotik % 5eko atxikipena ezarri zuen (ibilgetu material inbentariagarriaren kostua behin gutxitu ondoren) eta % 7koa Unibertsitatearen gastu orokorretarako.

2005eko ekitaldian % 5eko atxikipena egiten ari da Ikerketa Emaitzak Transferitzeko Bulegorako (IETB), % 5 Sailerako edo baliokiderako, eta % 2 Zerbitzu Orokorretarako, ondoren aipatuko ditugun salbuespenetan izan ezik:

- Saiotek eta Etortek programak Eusko Jaurlaritzak itzuli beharrik gabe emandako diru laguntzen deialdi publikoei dagozkie. Diru sarrera horiei % 5eko atxikipena egiten zaie IETBrako. Sarrera hauek ezin dira izaera zientifiko, tekniko eta artistikoa duten lantzat hartu eta honenbestez, ez dagokio IETBrako inongo atxikipenik egitea; izan ere, gastu orokorretarako geldikinaren atal izan behar duten EHUren sarrerak baitira, eta ez dira berariazko geldikinean barne hartu behar.
- Euskoiker Fundazioarekin harpidetutako kontratuei Zerbitzu Orokorretarako % 7 atxikitzen zaie eta Fundazioa gainerako % 5arekin geratzen da.
- Hainbat kontratutan erabilitako atxikipen ehunekoak ez datozela bat onetsi direnekin ikusi dugu eta aldeak nabarmenak ez badira ere, IETBk ez du horiek ezartzea justifikatzen.

Gobernu Batzordeak egokitu egin behar du kontratu hauek arautzen dituen arautegia, 1998an onetsitako arautegia gaurkotzearekin ezarriko diren atxikipen ehunekoak eta horien norako zehatza berariaz definitzeko.

- UPV/EHUK ez ditu ezarriak ikerkuntza kontratuen gauzatze egoera eta azken egoera kontrolatzeko behar diren prozedurak.
- EHUK % 50eko partaidetza dauka Euskoiker fundazioaren patronatuan, eta fundazio horrek bere diru sarrera gehienak Unibertsitateak izenpeturiko kontratu zientifiko, artistiko eta teknikoetatik lortzen ditu, kontratu horiek eta UPV/EHUK kudeatzen dituenak berdin-berdinak izanik. Kontratu horietan EHUren lokaletan eta EHUren langileak aritzen dira.

Bestalde, Euskoiker fundazioak kudeatutako kontratuei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- EHU arduraldi eskusiboko erregimena duten irakasle batzuek Bilboko Merkataritza Ganbara zentro atxikian ematen dituzte eskolak. Egoera hori, ordea, ez du 557/1991 Errege Dekretuak baimentzen, Unibertsitate eta unibertsitate zentroak sortu eta aitortzeari buruzkoak.
- EHUK Euskoiker fundazioak kudeatutako kontratuak izenpetzen ditu, baina ez du informaziorik kontratu horiek arrazoizkoak diren edo ez aztertzeko, ez daki bere irakasleek nolako arduraldia betetzen duten ikerkuntzan Euskoiker fundazioaren bitartez (ordu kopurua), eta ez daki zenbat kobratzen duten orduko.

Aztertu egin behar litzateke zenbateraino komeni den EHUrekin bat datorren fundazio xedea duen entitate bat mantentzea, horren jarduera Unibertsitatearen baliabideekin betetzen delarik, baina honek inongo kontrolirik izan gabe.

II.4 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Aztertu ditugun administrazio kontratazioko espedienteetatik (ikus A.14) zera azpimarratu nahi dugu:

- 4.290 mila euroan esleitu eta aurretiaz izapidetutako sei espedientetan, Administrazio Klausula Partikularren Pleguek ez dute esleipena kreditu egokia eta nahikoa izateko geldiarazte-baldintzara meneratzen, APKLTBren 69.4 artikulua aurreikusten duena.
- 7.684 mila euroan esleitutako bost espedientetan, Administrazio Klausula Partikularren Pleguek aurreikusten dituzten esleipen-irizpideak orokorrak dira eta ez dira modu zehatzean garatzen balioztatu beharreko alderdiak. Pleguek irizpide orokorrak garatu behar litzukete lehiatzaileek lizitazio unean jakin ahal izan dezaten zein izango den euren

balorazio zehatza, kontratazio publikoan buru egin behar duen gardentasun gorena lortzearen.

- Guztira 1.959 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hornidurako sei espedientetan, harrera aktak ez dituzte hornitzaileek izenpetua, APKLTBren 110.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 8.525 mila euroan esleitutako bi obra espedientetan eta hornidurako beste bitan, exekuzio epea nabarmen luzatu dela ikusi dugu, epea luzatzeko dagozkion onespene bideratu gabe. Obren exekuzioa Administrazio Klausula Partikularren Pleguan (AKPP) xedatutakoari jarraiki egin behar da, kontratuaren oinarri den proiektuarekin eta obra zuzendaritzaren argibideekin. Nolanahi deN, administrazioak kontratuak arintasunez exekutatzeko bultzatu behar du eta bertan sortzen diren gorabeherak formalizatu, hartara, atzeraldiak kontratistari edo Administrazioari egotzi behar zaizkion zehaztu ahal izateko eta suposamendu hauetarako APKLTBn jasoak dauden neurriak ezarri ahal izateko.
- Donostiako Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren (IITUE) eraikin berria eraikitzean, 2000ko ekitaldian 14.121 mila euroan esleitu zenean, esleipen hartzaileari 2004 eta 2005eko ekitaldietan fakturen ordainketan izandako atzeraldiengatik, hurrenez hurren, 147 eta 52 mila euro ordaindu zaizkio. Bestetik, esleipen hartzaileak EHUri 660 mila euro ordaindu dizkio inbertsioa exekutatzean izandako atzerapenengatik.

Unibertsitateak Diruzaintza Plan bat ezarri behar luke, besteak beste, APKLTBren 99.4 artikuluan aurreikusitako legezko epea iraungi aurretik, fakturen ordainketa kontrolatuko lukeena, hartara, berandutza interesen ordainketa saihestearren.

- Guztira 291 mila euroko zenbatekoarekin zazpi obra eta laguntza tekniko emateko beste bat gauzatu dira eskaintza bakarra eskatu ondoren; ordea, hiru eskaintza egiteko eskatu ondoren, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez egin behar ziratekeen.

BGUek zerbitzuak eta ondasunak erostea

BGU bakoitzak behar dituen gaiak erosten ditu beren zentroetarako, era deszentralizatuan; era honetara, bada, BGU guztiak bihurtzen dira erosketa zentro, eta, beraz, kontratazio espediente bat tramitatzeko araudian aurreikusitako zenbatekoak aplikatzen dira gastu unitate bakoitzerako.

BGUek kontratu txikiaren moldea erabilia izapidetu dituzten gastuak aztertu ditugu, eta antzeman dugu badirela zenbait produktu eta zerbitzu erosketa EHUK aztertu beharreko direnak, produktu eta zerbitzu horiek ahalik eta homogeneoenak izan daitezzen, eta, ondorioz, era zentralizatuan erostea egokia den erabaki dezan, horren arabera, administrazio kontratazioko espedienteak bideratu ahal izateko. EHUK, ordea, ez du produktu eta zerbitzu

homogeneoak identifikatuko dituen kontabilitaterik, eta, beraz, lan hori gastu handia dakarten aurrekontu kontzeptuei dagokienez egin beharko litzateke; horretarako, garrantzitsua litzateke jakitea zein diren gastua hornitzaile batengan edo gutxi batzuegan kontzentratzen duten kontzeptuak. Hori dela eta, ondorengo taulan zehaztu ditugu zenbait kontzeptu:

KONTZEPTUA	Mila €			
	BGU kop.	Hirugarren kop.	Faktura kop.	Zenbatekoa
Bidai agentziak	196	30	662	212
Analisi klinikoak.....	1	1	19	38
Maketazio diseinuak	7	1	11	39
Liburu, aldizkarien edizioa.....	8	2	29	69
Ikus-entzunezko ekipamendua.....	13	1	27	35
Gipuzkoako campusean iturgintza lanak.....	7	1	46	34
Gasak	184	2	803	435
Gasolioa.....	1	2	19	111
Ikastaroak ematea	5	1	11	34
Odontologiako tresneria eta materiala.....	1	1	70	45
Catering zerbitzuak	21	1	51	32
Laborategiko materiala	427	20	4.556	1.483
Bulegoko materiala.....	490	4	3.667	575
Material elektriko eta elektronikoa	41	2	182	89
Informatika-materiala	245	6	847	285
Erakunde eta ordezkariak gaiak.....	8	1	14	40
Ikus-entzunezko materiala	21	1	84	71
Errezelak eta pertsianak	13	2	55	92
Telefonia	9	2	107	55
Ikerketa lanak.....	14	2	34	99
Kopiagintza lanak.....	52	2	329	85
Itzulpena	20	2	66	134
Eraikuntza eta zaharberitze lanak.....	1	4	73	615
Ikus-entzunezko ekipamendua.....	35	4	100	189
Laborategiko ekipamendua.....	56	5	91	322
Informatika ekipamendua	78	4	117	181
Galdaren instalazioa	1	1	3	52
Kableatuaren instalazioak	1	1	11	56
Kopiagintza zerbitzua	256	8	2.414	350
Altzarien hornidura.....	8	3	23	85
Harpidetzak, aldizkariak, monografiak.....	44	13	3.090	1.076

Gure ustez, EHUk protokoloa ezarri behar du BGUek produktu eta zerbitzuak erosten dituztenerako. Protokolo horretan, produktu homogeneoak zehaztu behar dira, eta era zentralizatuan erosi, hala badagokio, administrazio kontratazioaren araudia betetzeko.

II.5 BEREZKO TITULUAK

Ikasketen Antolamendurako Errektoreordetzak berezko tituluen jarraipena egiten du ikastaroa amaitzean titulu arduradunek egiten duten oroi-idatzi akademikoaren arabera. 2004-2005eko urtealdiari dagokionez (ikasturte amaieran landutako informazioa eskura daitekeen azkena) honako atal hauek azpimarratu behar ditugu:

- Gobernu Batzordeak 2004-2005 ikasturte akademikorako baimendutako graduondoko 51 berezko tituluetatik, 36 titulazio bideratu dira; 15 ez dira gauzatu, batik bat, behar hainbat matrikulazio ez izateagatik.
- Irakasle bakoitzak eskolorduko kobratzen duen prezioak ez du mugarik (orduak 7,9 eta 210 euro/ordu artekoa eta zuzendaritzan 482 euro/ordukora iristen da); areago, berezko titulu bakoitzean ere prezio aldeak daude eta preziorik altuenak diruz lagundutako berezko tituluei dagozkien eskuarki.

Titulu bakoitzaren arduradunek mamitutako azken oroi-idatziak aztertzetik zera ondorioztatu da:

- Ez da azken oroi-idatzirik aurkezten titulazio batean.
- Irakasle batek ikasturte bakoitzeko gehienera eman ditzakeen kredituak gainditu ditu.
- Tituluak emateko proposamenean ageri diren irakasle kopuruaren eta irakasleen egiazko asistentziaren artean aldeak daudela ikusi da.



III. FINANTZAREN ANALISIA ETA BILAKAERA AKADEMIKOA ETA IRAKASKUNTZAKOA

Azken ekitaldietako finantza bilakaera honakoa izan da:

EKITALDIAREN EMAITZA	Mila €			
	2002	2003	2004	2005
Tasak.....	35.762	36.824	36.868	38.061
Kanpoko kontratuak	12.133	12.478	16.284	16.876
Bestelako sarrerak.....	3.553	3.997	4.336	3.791
Eusko Jaurlaritza (EJ) Urteko gastuaren finantzaketa.....	158.385	164.138	184.350	194.595
Bestelako diru-laguntza helburudunak.....	26.822	33.862	28.567	36.559
Ondare sarrerak.....	1.008	955	1.241	1.356
SARRERA ARRUNTAK	237.663	252.254	271.646	291.238
Irakasleria EHUren ordainsariak.....	(*)(116.507)	(*)(123.242)	(*)(129.676)	(138.622)
Irakasleria lkastaroak, egitasmoak eta kontratuak.....	(4.386)	(4.570)	(4.725)	(4.738)
Admin. eta zerbitzuetako langileria.....	(34.995)	(37.896)	(40.575)	(42.940)
Gizarte kotizazioak eta beste.....	(18.175)	(19.058)	(19.316)	(21.734)
Langileen gastuak.	(*)(174.063)	(*)(184.766)	(*)(194.292)	(208.034)
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak.....	(49.215)	(54.061)	(57.215)	(62.095)
Finantza gastuak:.....	(1)	-	-	(2)
Transferentzia arruntak.....	(6.782)	(7.115)	(7.731)	(8.264)
GASTU ARRUNTAK	(*)(230.061)	(*)(245.942)	(*)(259.238)	(278.395)
EMAITZA ARRUNTA	(*)7.602	(*)6.312	(*)12.408	12.843
Kapital transferentziek eragindako sarrerak.....	37.723	25.124	28.134	28.038
Inbertsio errealak.....	(49.795)	(31.605)	(40.008)	(32.084)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	(12.072)	(6.481)	(11.874)	(4.046)
Finantza pasiboen aldaketa (sarrerak)	-	-	-	15.400
Finantza aktiboen aldaketa (gastuak)	(87)	(87)	(87)	(87)
Ekitaldi itxietako sarreraren baliogabetzea	-	-	-	(1.322)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(87)	(87)	(87)	13.991
EKITALDIAREN EMAITZA	(*)(4.557)	(*)(256)	(*)447	22.788

(*) Kreditu ezaren ondorioz aurrekontu likidazioan erregistratu gabeko banakako ordainsari osagarriak barne hartzen ditu (4.651 mila euro 2002an, 5.347 mila euro 2003an eta 5.273 mila euro 2004an).



DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Mila €			
	2002	2003	2004	2005
GELDIKINA EKITALDI HASIERAN	34.324	29.767	29.511	29.958
GELDIKINA EKITALDI ITXIERAN	29.767	29.511	29.958	52.746
BERARIAZKO GELDIKINA	37.996	42.573	43.158	48.218
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	(8.229)	(13.062)	(13.200)	4.528

(**) Aurrekontu likidazioetan erregistratu gabeko banakako ordainsari osagarrien ordainketak barne hartzen dituzte: 4.651 mila euro 2002ko abenduaren 31n; 9.998 mila euro 2003ko abenduaren 31n eta 15.271 mila euro 2004ko abenduaren 31n.

EMAITZA ARRUNTA

2004ko ekitaldiaren emaitza arruntak igoaldi nabarmena izan du aurreko ekitaldiekiko, 2003 eta 2002, batik bat Eusko Jaurlaritzak EHUren urteko gastua finantzatzeko sarrerak % 12 igo izanaren ondorioz. 2005eko urtean sarrera horien urteko igoaldia % 5ekoa da eta gastuen bilakaerarekin batera, emaitza arrunta 2004ko ekitaldian izan zenaren pareko kopuruan jarri du.

Langileen gastuak

2005eko urtean langile gastuetan izandako % 7ko igoera hein batean langile kontratazioen ondorio da. Irakasle plantilaren bilakaera, campusen eta gaztelera irakasten duten irakasle eta irakasle elebidunen arabera, honako hau izan da:

IRAKAS-PLANTILA

	Plantila 1-1-2001	2001	Plantila aldaketak				Plantila 31-12-2005
			2002	2003	2004	2005	
ARABAKO CAMPUSA							
Irakasle elebidunak.....	130	15	9	21	9	53	237
Gaztelera irakasten dutenak.....	425	5	14	3	4	33	484
CAMPUSA GUZTIRA	555	20	23	24	13	86	721
GIPUZKOAKO CAMPUSA							
Irakasle elebidunak.....	337	15	26	16	22	38	454
Gaztelera irakasten dutenak.....	594	(7)	(4)	5	17	7	612
CAMPUSA GUZTIRA	931	8	22	21	39	45	1.066
BIZKAIKO CAMPUSA							
Irakasle elebidunak.....	508	36	40	16	47	38	685
Gaztelera irakasten dutenak.....	1.696	2	15	(10)	22	16	1.741
CAMPUSA GUZTIRA	2.204	38	55	6	69	54	2.426
IRAKASLERIA GUZTIRA	3.690	66	100	51	121	185	4.213

KAPITALEZKO ERAGIKETAK

Unibertsitateak 2005eko ekitaldian egindako inbertsioak % 20 murriztu dira aurreko ekitaldiarekin alderatuz; ordea, haiek finantzatzeko transferentziek bere horretan eutsi



diote. Inbertsioen kanpoko finantziarioa egin diren inbertsioen % 87koa izan da 2005. urtean.

GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA

Txosten ekonomikoan gastu orokorretarako aurkezten den geldikina, lehenengo aldiz azken ekitaldietan positiboa izan da 4.528 mila eurotan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta EHUK hitzarmen bat izenpetu baitzuten 2004ko abenduaren 21ean, finantziario eredu egonkor bat eta ordainsari gehigarriak finkatzeko. Hitzarmen horretan, besteak beste, 15.400 mila euroko defizit bat kalkulatzen zen 2004ko ekitaldira arteko, irakasleei eta ikerlariari ordainsari gehigarriak ordaintzeak eragindakoa. Eusko Jaurlaritzak defizit hori estaltzeko konpromisoa hartu zuen, EHUri 15.400 mila euroko mailegu bat eginda, 15 urteko eperako bi urteko gabeziarekin, interes tasa Gobernu Kontseiluak zehazten zuena izango zela.

Era berean, mota honetako osagarriari behin-betiko irtenbidea eman nahian, erabaki zen ordainsari gehigarri horiek halakorik duten irakasle eta ikerlarien lansari multzoaren portzentaje baten arabera finkatuko zirela (2005. urtean 9 milioi eurokoa dela kalkulatu da). EAEk % 85etik % 90era bitarteko portzentajea finantzatzeko du eta gainerakoa EHUK estaliko du bere diru sarreren kargu.

MATRIKULAZIOEN, TITULAZIOEN ETA IRAKASLETZA ETA AKADEMIAKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

Ondotik zehaztu dugu lehenengo mailako matrikulazioen, titulazioen bilakaeraren eta irakasletza eta akademiako adierazleen gaineko informazioa.

LEHENENGO MAILAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK

CAMPUSA/IKASTURTEA	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006
Araba	1.850	1.871	1.840	1.757	1.687
Gipuzkoa	2.539	2.774	2.790	2.877	2.657
Bizkaia	5.516	5.838	5.760	5.510	5.067
GUZTIRA	9.905	10.483	10.390	10.144	9.411

TITULAZIOAK

CAMPUSA/IKAST. 00-01 ikastur.	Titulazioak	Titulazio berriak					Titulazioak 05-06 ikastur.
		2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	
Araba	25	3	-	-	-	1	29
Gipuzkoa	26	1	2	(1)	-	-	28
Bizkaia	48	5	1	(3)	-	-	51
GUZTIRA	99	9	3	(*) (4)	-	1	108

(*) Hainbat titulazioen antzinako planen amaiera da.



IKASTURTEA	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006
Matrikulatutako ikasleak guztira	51.523	50.385	49.300	48.132	47.104
Ikasturte hasierako urte bukaeran					
Irakasleak guztira	3.756	3.856	3.907	4.028	4.213
Irakaskuntza zama (ikasleak/irakasleak).....	13,72	13,07	12,62	11,95	11,18
Jaiotzak (*).....	23.920	22.411	20.970	20.094	18.593
Lehenengo mailan matrikulatutako ikasleak...	9.905	10.483	10.390	10.144	9.411
EHUra iritsiko den % biztanleria, urte teorikoa	% 41	% 47	% 50	% 50	% 51

(*) Ikasturtearen jatorri urteko jaiotzak. (n-18)

Ondoko ikasturteetan EHUn sarbidea izango duen biztanleriaren bilakaera honako hau izango da:

Urtea	Sarbide urtea	Jaiotzak	Urteko bariazioa
1988	2006-2007	18.021	% (3)
1989	2007-2008	17.024	% (6)
1990	2008-2009	16.361	% (4)

EHUra sarbidea izan dezakeen biztanleria % 12 murriztu da 2005-2006 ikasturtetik 2008-2009ra bitartean.

Datuak aztertzetik (berariazko lan batean faktore ugari direla aztergai abiaburu hartuta, fiskalizazio txostena zer den alde batera), honako ondorio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Azken bost ikasturtetan irakaskuntza zamak behera egin du.
- EHUra irispidea duen biztanleriaren ehuneko gehitu egin da 2005-2006 azken ikasturtean eta % 51ra arte iritsi da.
- Jaiotze tasaren beheraldiak eragin nabarmena izan dezake etorkizuneko matrikulazioetan; bestetik, azken ikasturteko EHUrako sarbide-ehunekoari eusten zaion eta horren garapena ikusi beharko litzateke, besteak beste, Euskal Herrian dagoen unibertsitate eskaintza zabalagoak baldintzatzen baitu, izan ere, eskaintza pribatua – Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea-, titulazioen eskaintza areagotzen ari baita.



IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mila €

KAPITULUA	HASIER. AURREK.	ALDAK.	B.-BETIKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGAZ.	KOBR./ ORDAIN.	ZORDUNAK/ HARTZEK.
DIRU-SARRERAK						
3. Tasak eta bestelako sarrerak	53.350	6.983	60.333	58.728	36.839	21.889
4. Transferentzia arruntak	204.877	27.141	232.018	231.154	218.804	12.350
5. Ondare sarrerak	1.050	198	1.248	1.356	1.136	220
7. Kapitalezko transferentziak	19.645	10.515	30.160	28.038	15.602	12.436
8. Finantza aktiboen aldaketa	-	59.751	59.751	45.229	45.229	-
9. Finantza pasiboen aldaketa	15.400	-	15.400	15.400	15.400	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	294.322	104.588	398.910	379.905	333.010	46.895
GASTUAK						
1. Langileen gastuak	197.552	14.460	212.012	208.034	208.025	9
2. Ondasun arruntan erosketak eta zerbitz	59.134	35.074	94.208	62.095	55.034	7.061
3. Finantza gastuak:	-	2	2	2	2	-
4. Transferentzia arruntak	4.937	8.850	13.787	8.264	7.594	670
6. Inbertsio errealak	19.412	29.603	49.015	32.084	22.080	10.004
7. Kapitalezko transferentziak	-	6	6	-	-	-
8. Finantza aktiboen aldaketa	13.287	16.593	29.880	16.680	16.680	-
GASTUAK GUZTIRA	294.322	104.588	398.910	327.159	309.415	17.744

EKITALDI ITXIEN BILAKAERA (*)

Mila €

	HASIERAKO SALDOA	BALIOGAB.(**)	KOBR./ ORDAINK.	AZKEN SALDOA
ZORDUNAK	53.335	(1.322)	35.708	16.305
HARTZEK.	21.963	-	21.708	255

(*) HKEEK mamitutako taula, EHUren datuak abiaburu hartuta.

(**) EHUk baliogabetzeak obligazio modura kontuataratu ditu Aurrekontuaren 8. kapituluan.

IV.2 PILATUTAKO EMAITZA

PILATUTAKO EMAITZA

Mila €

Aitortutako eskubideak (*)	379.905
Aitortutako obligazioak	(327.159)
2005eko ekitaldian aitortutako obligazioak ...	(325.837)
Urtealdi itxien emaitza	(1.322)
PILATUTAKO EMAITZA 05.12.31-N	52.746
BERARIAZKO GELDIKINA (-)	(48.218)
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	4.528

(*) 2004ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikina.



IV.3 ONDARE KONTUAK

D. EGOERAREN BALANTZEA 2005eko abenduaren 31n						Mila €
AKTIBOA	Eranskina	2005	PASIBOA	Eranskina	2005	
IBILGETUA		195.318	BEREZKO FONDOAK		230.815	
Ezmateriala.....		210	Ondarea.....		202.509	
Amort. ezmateriala.....		(2)	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		36.700	
Materiala eta abian.....		352.326	Ekitaldiko ondare emaitza.....		(8.394)	
Amort. materiala.....		(159.067)				
Langileentzako maileguak.....	A.11	1.848				
Ibilgetu finantzarioa.....		3				
ZORDUNAK		64.249	ARRISKU ETA GASTUETARAKO ZUZKIDUR.		2.846	
Aurrekontuzkoak, indarr. ekit..		46.548	Langile maileguetarako zuzkid.	A.11	2.571	
Aurrekontuzkoak, ekit. itxiak... A.10		16.305	Bestel. txikiagoak.....		275	
Aurrek. kanp. bestel. zord. A.11		1.396				
			EPE LUZEKO ZORRA	A9	15.400	
			HARTZEKODUNAK, EPE LABURRERA		27.339	
DIRUZAINZA.....	A.12	16.833	Kreditu entitateekiko zorrak.....	A.12	308	
			Aurrekontuzkoak, indarr. ekit.		17.744	
